

Voxekeriak

Amagoia Mujika
Telleria

Voxen voxekeriak. Gurasoen pinarekin bazterrak nahasten aritu dira lehenbizi. Hezkuntza publikoan haurrei masturba-tzen erakusten zaiela, homosexualita-tea bultzatzen dela... gezurra gezurra-ren gainean, saldu nahi duten apokalipsia irudikatzeko. Ez daukate erreparorik horretarako muntaiak egi-teko, hitzaldiak asmatzeko eta urrutiko irudiak gertukoak bailiran saltzeko. Ale-gia, film porno batetik irudi bat hartu eta bost urteko haurren ikasgela batean kokatzeko gai dira, lotsagabe eta aztora-tu gabe. Okerrena da jende gehiegi da-

goela *fake news*ak mastekatu gabe oso-osorik irensten dituen. Eta sare sozia-lak apartekoak dira gezur bat mila aldiz errepikatu eta egiaz mozorrotzeko. Horrekin aztoratuta genbiltzala, des-pistatuta, euskararen kontrako harro-puzkeria etorri da. Euskaraz ez dakite-nak baztertuta bizi omen dira euskararen herrian, beren hizkuntza eskubideak zapalduta. Alegia, komuni-tatean ura moztuko dutela ezin jakin-da, atarian oharrak euskara hutsean jartzen direlako. Ez dago eskubiderik. Beren hizkuntza eskubideak zapaltzea gutxi ez eta lasai dutxatzeko edota ba-

razkiak egosteko sekulako oztopoak sufritu behar, euskararen nagusitasu-nak eta agintekeriak zapalduta bizitze-ra kondenatuta daudelako. Batzuetan, gutxi batzuetan, Voxekoa izateko desioa izaten dut. Irudikatzen duten jendarte desastre horretan hau-rren eta gaztetxoek sexu hezkuntzak sekulako garrantzia dauka eta oso-oso irekia da. Eta, gainera, euskara osasun-tsu, indartsu, nagusi eta gaztelera za-paltzeko moduan dago. Egiatan, ez da-kit Voxekoek zer botatzen dioten zopari, baina nik ere probatu nahiko nuke pixka bat. •

Zaindaria lapur

Xabier Mikel
Errekondo

Hilaren 16an “Le Point” aldizka-riaren bidez jakin dugu ETak Frantziako agintariei entrega-tutako armetatik ehundik go-ra lapurtu zituztela horien zaindari zi-ren polizia bik. Tartean pistola ugari, detonagailuak eta Kalaxnikov bat. Ez omen ziren arma trafikorako, bil-dumarako baizik, armekiko pasioa iza-ki. Eta, noski, Frantziako agintaritzak aitzakia baleko eman eta bere polizia, nahiz ustelkeriaz jota, babestu egin du. Nago, baina, bilduma osatzeko nahikoa luketela mota bakoitzetik ale

bana hartzea; aitzitik, ehundik gora ar-ma lapurtzeak helburu bakarra izan dezake, merkatu beltzean saldu eta aberastea. “Nire lagun estralurtarra”... Louis de Funesen pelikulak datozkit gogora. Frantziako Polizia Guardia Zibilaren pare, alajaina; broma bat dirudi, baina esango nuke urte askotako harrema-nen ondorioa dela. Uniforme berde oliba hori zuritzeko adina kasu badu Guardia Zibilak droga lapur gisa. Nonbait, tentazio iturri da konfiskatutako droga bere zaintzaile-

entzat... lapurreta zuriagorik? Ziur eus-kal gazteria menpeko bilakatzeko bi-deratua izan dela asko eta asko... Ederra paradoxa; ETak eta Bakearen Artisauek egin armen entregatzeko ekintza, interes politiko gaiztotuek gu-txietsia izan zena, orain, aitzitik, poli-ziaren ustelkeriak sinesgarritasuna itzulua. Ertzaintza ere polizia egin gaitezen erreklamatzan ari den honetan... hain-besteko mesfidantza sortzen duten he-rritarron zaindariak nork zaindu behar ditu? •